


Zumaiako herri aldizkaria

1998ko iraila

BALAIKE

100 pta.

49. zenb.



- Turismoaren gorakada nabarmena Zumaiian
- Xabier Aldalur, Andeetan galduta
- Zumaia hotela ireki dute

● **Jose Luis Oiarzabal:**
"Nik barrena lasai daukat"



ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

UNIBERTSITATEA

LAN MUNDUA



Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faxa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIAKO GAZTE
BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Eneko Dorronsoro
Josu Waliño
Iñaki Zubimendi

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esti Esteibar
Esther Aizpurua
Iratxe Aizpurua
Esther Martinez
Joseba Ossa
Juan Luis Romatet

Igor Uranga

José Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre

Igor Uranga

Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro taller
eskola, Miriam Romatet,
Jon Manzisidor, Josu
eta Arantxa, Igone eta
Nerea, Rikardo
Zengotita, Fototeka,
Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Aitor Larrañaga

Argazkiak

Jonathan Bernal

Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Itziar Uranga,

Xabier Azkue

Banaketa

Eneko Dorronsoro

Ainara eta konpainia

Publikitatea

Iñaki Zubimendi

(943 143226)

Inprimategia

Gertu Inprimategia

(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.



Urte berri on!



Esti Esteibar

Gustora gabiltzanean tximista baino azkarrago pasatzen omen da denbora eta adibide garbia abuztuan gertatzen dena da ezta?

Urte osoa abuztua noiz iritxiko zain egon eta gero arrapaladan, ia oartzeko betarik gabe, pasatzen zaizkigu egunak, eta ametsetatik esnatuko bagina bezala urtero "mobida" bera:

Batzuk haurren ikasturtea planifikatzen nahiko lan: ikastolatik irten eta dantza, ingelesa eta pianoa ikastera bidali, edota mutikoari karate, informatika eta saxofoia gehiago gustatuko ote zaizkion duda-mudan.

Besteak, udarako ordu goxoak burutik kendu gabe, egunerokoa bizitu ordez oroitzapenetan murgiltzen dira.

Ausartagoak, aurrera begiratu eta ilusioz ekiten diote ikasturte berriari, berehala ahaztuko zaizkien asmoz burua beterik.

Udaran lanean aritu direnak aldiz, orain dute patxada eta opor garaia.

Laburbilduta, aldaketa garaia degu, transizio garaia, eta ospatzen ez badugu ere praktikoki urte berriari hasera ematen diogun momentua.

Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 02 50	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48
Alkoholikoen senideak	943 47 54 03	Sexu-informazioa	943 32 04 44

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



fundazioa
fundación



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Euskal literatura eta androzentrismoaz

Ez dakit Begoña Muruagaren izenak ezer ekarriko dion gogora irakurlegoari. Ez eta beronek Jakin aldizkariaren 106. alean aipatzen duen Linda Whiterenak.

Atzekoz aurretik hasiko naiz eta aipatu aldizkariako hitzez baliatuz:

"Linda White, Renoko Unibertsitateko irakaslea, euskararen irakaskuntza eta euskarak historian zehar izan duen garapena ikertzen aritu da azken urte hauetan." Linda Whitek egindako 'Emakumeen Hitzak Euskaraz' izeneko tesi interesgarriaren laburpena eskeintzen digu Begoña Muruagak azken Jakinean.

Eta zer ondorioetara iritsi da ba delako Linda White bere ikerketan?

Berak dioenez idatzi duen gizon oro sartua izan da Euskal Literaturan, baina emakume idazleari dagokionez erabilitako galbahea askoz hertsia goa izan da, eta ondorioz Euskal Literaturaren Historia ezagunenetan sei emakume izen soilik azaltzen dira.

Baina euskal idazletzat hartzeko baldintzak: 1- euskaraz idatzi, 2- itzulpenak egin, 3- gutxienez lan bat argitaratua izan, baldin badira, zer gertatzen da?, ba sei emakume izen ezekik 121 emakume idazlerenak ere badirela XX. mendeko Euskal Literaturan, horietatik 71k literatur lana egin dutelarik.

Horien guztien izenak jartzen ez baditu ere, bi garaitan sailkatzen ditu:

a) Gerra aurreko emakume idazleak, gehienak irakasleak eta aldizkarietan idazten zutenak.

b) Gerra ondorenekoak, hainbat lanbidetakoak, eta aldizkari zein argitaletxeetan argitaratu dutenak.

"Ikerketa androzentrikoa gizonen ikuspegia bakarrik kontuan hartzetik dator" dio Muruaga andreak bere artikuluan, "... literaturaren ikerketa ere, esan beharrik ez dago, ikuspegi bakar horretaz kutsatuta dago, eta hori da, hain zuzen ere, Linda Whitek salatzen duena".

FELI URIA**Estitxu Eizagirre****Dirua**

*Dirua dugu babesten eta
dirua da gure babes
txanponen truke edozer gauza
eros liteke gaur legez
esku-arteaz zer darabilgun
geure buruari galdez
defini daiteke errez
guztien jainko ta juez
garabatodun metal puska bat
baliorik ez du berez
ta epaitzen du mundu honetan
zerk balio dun ta zerk ez*

*Zorte kontua da premu edo
umezurtz munduratzea
zorte kontua sedatan edo
kartoipean lokartzea
loteriaren bonboa baita
injustizien eltzea
non, zer ta noiz jaiotzea
hori da hori trantzea!
Txanpona bota airera eta
hola erabakitzea
aurpegi latza izango duen
edo eta gurutzea*



Arrain eta
mariskoak

Barazkiak eta
aurrez prestatutako
jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

HARATEGIA
URDAITEGIA



HARAKINA

Itzurun zuhaitzbidea, 1
Tel. 862430

ΔIZMAN-KOS S.L.

**SANEAMENDU ETA
ERAIKUNTZA MATERIALAK**

Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa
Tel. Faxa: 148124
20740 IRAETA- ZESTOA

Zumaia. Historia

Lourdes Odriozola Oyarbide
Zumaiaiko Udala.
Donostia 1998



Joan den uztailen aurkeztu zen Zumaiaiko historia jasotzen duen liburu berria. Liburuak behin ere argitaratu gabeko informazioa du, beraz ezinbestekoa izango da gure herriko historia ezagutzeko. Hala ere, egileak onartzen duen bezala, kapituluaren arteko ezberdintasun handiak daude, kontsultatutako iturriek eraginda.

Nire ustez hiru zati dira lan gehiena eta garapen borobilena izan dutenak: 3. kapituluak, herriko egitura administratiboari buruzkoa. Aipagarria da baita ere, hirigintzari eskainitakoa, XIX eta XX. mendetan eraiki ziren proiektuak ondo ikertuta daudelako eta proiektuen marrazkiak argitaratu direlako.

Zati horiek guztietan Lourdes Odriozolak berak eta beste egile batzuek argitaratu gabeko ikerlanak erabili direnez, material ezezagun hori eskuratzeko eta kontestuan sartzeko aitzaki ona da liburuak.

Alde onak txarrak baino askoz ere gehiago diren arren, iritsi pertsonala eman nahi dut, bai metodologia, bai bi kapituluaren edukien gainean. Arazo metodologikoa Zumaiaiko historiari buruzko bi liburu zaharren (Martinez Kleiserrena eta Olaetxearena) estruktura gehiegi jarraitzea da. Horren adibide garbiena kultuari eta erlijioari eskaintzen zaion kapituluak da, zergatik kapitulu hau? eta ez beste bat gizarte egiturari buruzkoa adibidez?

Honekin lotutako beste arazoa da, alde sozial eta politiko batzuen presentzia eza.

Liburuak ez ditu erantzuten nik askotan neure buruari egin dizkiodan oinarriko galderak: noiz eta nola iritsi zen nazionalismoa Zumaiaara?, noiztik dago sindikatu bat herrian?, zer gertatu zen guda karlistetan eta guda zibilean?, zenbat emakumek egiten zuten lan Arbilagaren zaku fabriketan?, hasierako turismoa nongoa zen?,

desamortizazioak eragina izan al zuen gure herrian?... Nahiago dut interpretatzen duen historia (nahiz eta okerreko interpretazioa izan), artxibotan bildutakoa kontatzen duen historia baino. Adibidez, herriko alkateen zerrenda hobeto ikusten dut eranskinekin batera, testuaren barruan baino, ez baitut uste irakurtzeko ezer denik, kontsultarako informazioa baizik.

Arazo handiagoa da azken zatiena. Arteari buruzko kapituluak ez du ezer berririk esaten, idatzita zegoena jaso eta errepikatu da besterik gabe. Festi buruzko kapituluak ez dut ulertzen, ez badago gauza handirik esateko hobe izaten da ezer ez esatea.

Azkenik, dokumentuen eranskina oso baliagarria izango da hemendik aurrera Zumaiaiko historia ikertu nahi duenarentzat.

◀ ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA

INMOBILIARIA



BIDAIAK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

TALAI-MENDI
DEKORAZIOA

- * Eskaiola
- * Pintura
- * Pladur
- * Erreformak oro har

ERAKUSKETA: Juan Belmonte, 35
Tel. 929-550574

TXALAPARTA
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089



ALBAITARITZA
KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Zumaian ere ez gara egin gabe geldituko

EGINen aldeko hainbat ekimen martxan daude

Uztailaren 15ean, Garzon epailearen aginduz, Polizi Nazionalak EGIN-en egoitza guztiak okupatu eta itxi zituen. Egun batzuk geroago 'ez zuten espero, baina ausartu gara azkenean' zioen Aznarrek. 240 langile kalean utzi dituzte, hauetatik 160, tartean zumaiar batzuk, langabeziarik kobratu gabe, eta 150.000 lagun beren egunkaririk gabe. Patxizarra bezain ausartak PPko hauek.

'Egingo dugu' entzuten da ordutik han eta hemen. Baleikeko kideok ere zerbait egin beharraz aritu ginen itxieraren ondoren. Eta halaxe, zumaiako 'Hitz egin' plataformako kideengana jo dugu elkarrizketatxo bat egitera.



"Ez da oraingoa izan polizia EGIN-en sartu den lehenengo aldia. Laurogeko hamarkadan Mirentxu Purroy egunkariko zuzendaria atxilotzera sartu zen Polizi Nazionala, eta 96an Pepe Rei kazetariaren artxiboak arakatzena Ertzaintza. 'Hitz egin' plataforma bigarren eraso honen ondotik sortu zen, egunkariaren sustengurako ekimenak koordinatu eta batik bat honen egoera ekonomikoa larriari (92tik aurrera Jaurlaritzak egindako boikot publikitarioak eragindakoa) aurre egiteko ekimen desberdinak bultzatzeko. EGIN ez zen administrazioen gustokoa eta oztupo guztiak jartzen zizkioten, baina horregatik ere inork ezin zezakeen etorri den astakeria espero" dio Erramun Telleriak.

"Garzonen autoa PPren enkarguz poliziaren artxiboetan urteetan hautsa hartzen egon diren EGIN-i buruzko paperekin egindako jesukristoren pastel bat da, ez sinistekoa" jarraitzen du, "eta aipatzen dituen guztiak egiak balira ere ez dute komunikabide bat ixtea justifikatzen, inongo deliturik egin ez duten berrehundik gora langile kalera bota, eta inongo deliturik egin ez dugun 150.000 irakurle periodikurik gabe uzten baikaitu".

Bestalde EGIN-en itxieraren ondotik badirudi PP gogoarekin dagoela gehiago ere egiteko: HBren ilegaltzazioa aipatu du Mayor Orejak, AEK-ak ere eraso batzuk izan ditu... "Euskaldunok ematen diogun erantzunaren arabera jokatu du PPK" dio Erramunek.

Erantzunik egokiena lehenbailehen EGIN berri bat kalean izatea litzateke, eta horretarako guztion laguntza beharko da. Zumaiako 'Hitz egin'ek ere antolatu ditu zenbait ekimen. Laguntza kuotak handik eta hemendik lortu nahian dabilta (hilean mila pezeta, paperak 'inernupen' eskatu), kamisetak ere salgai daude tabernetan, eta abuztuan zehar astebururo EGIN-en aldeko zozketa egin dute. Dirua sartzeko kontu zenbaki bat ere jarrita dago: Caja Laboralean 30350025860251011936. Eta irailean ekimen gehiago jarriko omen dira martxan.

"Duela hogeitun urte horrelaxe sortu zen EGIN, herriko jendearen lanarekin, eta horrelaxe egingo dugu berria ere" komentatu digu Erramun Telleriak..

◀ ANTOKA AGIRRE

Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4

Tel. 861407



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behe Tel. 861018

BALEIKE

1998ko iraila. 49. zenb.

Elikagai kontserbagintzan prestakuntza ziklo berria eskaintzen du Zumaiko institutuak

Aurten lehen aldiz, Zumaiko Institutuak Barazki, Haragi eta Arrain Kontserbagintzan Teknikaria izateko ikasketak eskainiko ditu. Euskal Autonomi Elkartearen Elikagaigintza sektoreko enpresek, bereziki kontserbagintzakoek, ez dute berezko prestakuntzarik izan orain gutxi arte.

Elikagai produktuekin lan egiteko ez zen ikasketarik egin behar, baina hau ere aldatzen joan da. Izan ere, kontserbagintza enpresak oraindik sasoi onean dauden enpresak dira, hemen ingurukoak behintzat. Baina sektore honetan ere prestakuntza maila ere hobetzen doa, nahiz eta oraindik egitura sendorik ez osatu. Hemen sartzen da bada, Zumaiko Institutua.


Langile espezializatuen beharra

Elikagaigintzako beste lanbide esparruekin osagarri den prestakuntza egitasmoa garatu nahi du: kalitatea,

ekoizpena, azterketa, ingurunea etab. Kontserbagintzako enpresetako arduradun eta langileen ordezkariak, langile espezializatuak behar dituztela diote. Zentzu honetan, enpresak prest ageri dira ikastaroen eduki-diseinuetan Zumaiko Institutuaren lankide izateko, ahalik eta ongien antola daitezen prestakuntza ikastaro hauek.

Guztira, 1.400 ordu dira ikasketa hauetan eman beharrekoak. Ziklo berri honetan ikasten jartzeko sarrera baldintzak honako hauek dira: IEE lehen zikloa, LH 1 edo BBB 2 gauditua izatea; bestalde, aurreko baldintzak betetzen ez dituztenentzat eta 18 urtetik gorakoentzat, sarbide froga bat legoke.

Ziklo hau amaitutakoan ikasten jarraitu daiteke edo lan munduan sartu. Azken honetan batez ere hiru aukera soma daitezke. 1) Barazki, okela eta arrainen kontserbagintzan



lan egin; 2) elikaduran, janari prestatua, ostalaritza eta antzekoetan jardun; 3) autoenplegua, kontserbera txikiak edota nekazari nahiz abeltzain kooperatibak sortuz. ◀

Zumaia hotelak ireki ditu bere ateak

Uste baino beranduago, baina azkenean ireki ditu bere ateak Zumaia Hotelak. Alai Auzategia eta Estazioaren arteko etxebizitza berrietan dagoen hotel hau udako ireki nahi zuten, baina azkenean eraikitze lanak atzeratuz joan dira eta abuztu hasiera arte itxaron behar izan dute.

Hotela, zonalde horretan egiten ari diren etxebizitzetako baten zati bat da. Hau da, beheko solairuan du

harrera eta lehenengo pisuan bezeroentzako 16 gela daude prestatuak; honetaz gain, bileretako gela bat ere badago, logelak indibidualak eta bikoitzak dira. Lehenengoetan gaua pasa nahi izanez gero, 5.500 pezeta ordaindu behar dir eta bikoitzetan berriz, 1.000 pezeta gehiago, 6.500 pezeta. Hemendik lasterrera berriz, taberna bat irekiko dute eta gainera, jatetxe bat ere izango du.

Hotelaren jabea, Dani Arratibel

ataundar gaztea da eta berak azaldu duenez, "orain arte oso harrera ona izan du. Jende asko etorri da bertara". Hotel hau batez ere enpresako jendearentzat dago zuzendua, inguruko lantegietara datozen enpresariak atseden hartzeko leku bat izan dezaten. Dena den, uda garaian jende asko pasatu da bertatik oporretan daudela aprobetxatuz. ◀

ARGIA
ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 143224

Arkupe
Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 861521

AUTOS ZUMAIA
Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45 Tel. 861485

“Where is Izugun beach?”

Turismoak gorakada nabarmena izan du herrian



Jaurlaritzaren txosten baten arabera 143.000 bisitari ibili da EAEn aurtengo uztailean, iaazkoan baino %34 gehiago. Zumaian ere nabarmendu da gorakada. Paol bidean egunero laupabost karabana, Eroskitik bueltan gatozela familia bat San Juan iturria bideoan grabatzen, japonesez bat ‘Inpernupen’ bazkari eske eta italiarrak nonahi. Eskolan ikasitako inglesa zeharo ahaztu zaigula konturatu gara frantses batzuk Itzurungo plaira iristeko nondik joan behar duten galdetu digutenean. “Nola esaten dek igo ingelesez?”. “Etzekiat... go up uste diat”. “Tu ahi adelante coges left, si, left, a la plaza, y luego sigues todo arriba, go up, arriba. Hoixe. Primero left, y luego arriba, todo recto, very wel”.

‘Zatoz eta kontu ezazu’ dio Jaurlaritzaren Turismo Sailaren leloak, eta leloari kasu eginaz, Zumaiara etorri diren turistek herriaz zer kontatuko luketen ezagutzera atera gara kalera argazkilaria, kazetaria eta interprete banak osaturiko ekipoa.

Beheko Plaza ondoan topatu ditugu lehenengo turistak, Belgikako Hendriks familia. Interpretea larri zebilen aitarekin ingelesez ezin ulertuta, alaba ondora etorri eta espainolez pixkat badakiela esan digun arte. Kristien du izena, eta Granadako

unibertsitatean urtebete egona dela esplikatu digu, hortik dakiela espainola. Bi astetan euskal kosta zeharkatzea da beren plana. Bilbon egin zituzten egun batzuk, eta Gugenheim-a ez zitzaien gustatu, “muchu cola” Kristien-ek dioenez. Gero Ondarruko festetan egon dira, Granadako bere ikaskide ondarrutar baten etxean, eta azkenik Zumaia. Lau egun pasa behar dituzte hemen, eta lehenengo gaua hotelean egin bazuten ere Zestoako balneariora aldatu dira, hotela obretan zegoenez pintura usai

handia omen zuelako. Jatekoa Gernika pasealekuko txiringitoan egin dute, eta konforme gelditu dira. Zumaian gehien gustatu zaiena galdetu diegunean bastante harrিতuta utzi gaitu Kristien-ek: “Ibaiko arraiak, glu-glu-glu egiten dute eta”.

Kanpina falta dela dio Mazé-k

Portuan Samuel topatu dugu, han aparkatuta zegoen rulot batean arranzarako trasteak gordetzen. Parisetako



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2

Tel. 862206



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433
Faxa: 861067

AZKUE

Taberna - jatetxea

KARTA . MENUA . OHEAK

Basadi, 9

Tel. 862441

da, gurasoekin etorri da, eta Bizkaiko kostan astebete egin ondoren etxera bidean lotarako gelditu dira Zumaian. Asko gustatu zaie Euskal Herria, berari bereziki olatuengatik, surfean ibiltzen baita.

Samueli Itzurunen oso olatu onak daudela esan eta hara nola iritsi azaltzen saiatu ondoren paol bidean aurrera jarraitu dugu turistaren ehizean. Aita Mariko terraza batean harrapatu ditugu Mazé, Appriou, Mangel eta Thgraud. Izenak deletreatzen ordu erdi pasa ondoren, Bretoniakoak direla azaldu digute, ikasleak, Santanderren egin dutela astebete, eta orain Miarritzen daudela beste astebeterako. Egun pasa daude Zumaian, eta gustatu zaiela diote, baina zahar gehiegi ez ote dagoen. Neskak, Appriou uste dut, portua zikina dagoela dio, eta Mazé-k kanpina falta zaiola herriari. 'Leize' tabernara bidali ditugu.

Paol puntan madrileño batzurekin aritu gara hizketan. Eva de la Parra eta Jose Luis Yañez dira beren izenak

eta familia dute Zumaian. Hirugarren aldia da hona datozela, astebete egingo dute herrian, eta asko-asko gustatzen zaie, batez ere itsasoa. Bazkaria hondartzan eta afaria jatetxean egiteko asmoa dute eta agian bisitaren bat egingo omen diote Gugenheim-ari.

Gure safari partikularra bukatzeko 'pies negros' frantziar batekin egon gara Amaiaiko plazako banku batean. David dauka izena, Montpellierrakoa da eta denboraldi luze bat darama Europan bueltaka, egunean auto-stop-ean 15 bat kilometro mugituaz. Donostiako Aste Nagusian egon zen lehenengo, Bilbokoan gero, eta orain Frantzia aldera doa berriro ere. Euskal Herria gustatu zaio, 'aire bueno' dio, eta mendiak ere oso ederrak direla. Motxila handia bizkarreran, teniseko pelotatxoa eskuan duela, ile rastak eta eguzkitako antioju txiki batzuekin Baleike hontarako portadan ederki geldituko litzateke, baina ez du argazkirik ateratzerik nahi. Zigarroa eskeinuta ere ez da

bigundu, "hoy no, mañana" esan digu parrez-parrez.

Turismo bulegoan

Egunkarietan azaldu den txosten baten arabera Euskal Autonomia Erkidegoan izan ziren bisitarien kopurua %34 handitu da aurtengo uztailean, iazko uztailearekin konparatuz gero. Era horretan, aurten 143.000 bidaiari ibili da EAEn.

Arabian iaz baino %30 bidaiari gehiago izan da, eta Gipuzkoan %18 gehiago, eta Bizkaian %128 gehiago.

Nafarroatik eta Espainiatik iritsitakoak dira bisitarien %62a eta beste lurraldeetatik gainerakoa, nahiz eta hazkunderik handiena bigarren multzo horretan gertatu den.

Zumaiako datuak ezagutzeko herriko turismo bulegora joan gara, bertako arduradun dagoen Nekane Urbietari galdetzeraz.

5000 bidaiari pasa dira Zumaitik

Nekane ez du portzentaiarik atera, baina joan den urtean baino askoz jende gehiago etorri delako inpresioa dauka. "Gain-gainetikan begiratuta joan dan urteko zerrendak motxagoak direla ikusten da, aurten 5000 lagunetik gora pasa dira bulego honetatik" azaldu digu.

Oraindik ere bisitarien gehiengoa osatzen duten azeptiar, azkoitiar eta eibartar jendea alde batera utzita (hauek udatiarrak lirateke eta ez turistak), italiarrak, frantsesak eta kataluniarrak izan omen dira Zumaiara gehien azaldu direnak. "Hala ere



balezulo
importaturiko erroa eta artisautza

Basadi, 3

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449

BARRENETXEA
Garraioak

GARRAIO ASTUNAK

BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

danetikan euki deu: australiarrak, japoniarrak, txiletarrak, EEBBarrak, brasildarrak..." komentatzen du Nekane.

Zumaia nola saltzen den galdetu diogunean gida turistikoak atera eta atera hasi da bulegoan dituen apal eta kajetatik. Turismo sailak Gipuzkoako eskualdeei buruz atera duen gidan Julio Beobide eta Zuloagaren museoak eta Zumaia eta Deba arteko marearteko zabalunea aipatzen ditu Urola-Kosta-ri eskaintzen dion orrialdean. Probintziako txokoen inguruan Gipuzkoako Foru aldundiak argitaratutako liburuxkan Santiago ('Natura eta artea' izenburuarekin), Artadiko San Migel ('Txoko baketsua') eta San Telmo eta Algorri-ri ('Itsas ertzean') buruzko argazki eta azalpenak jasotzen dira. Getaria, Orio, Zarautz, Aia, Zumaia eta Zestoak osatzen duten 'Gozaz' mankomunitatearen liburuxkan, berriz, San Pedro parrokia, Itzurun-hondartza, Laia museoa eta Faroko pasealekuari buruzkoak. Eta azkenik, mankomunitatearen gidan Zumaiako jatetxe, festa, erakusketa eta museo, eta polikiroldegiak udarako eskaintzen dituen ikastaroen aipamenekin orrialde bat betetzen dute.

"Gida eta liburuxkaz karga-karga eginda ateratzen dira bulegotik.

Donostiako Udal Patronatuak atera duen turistarentzako euskarazko oinarriko hiztegitxo bat ere ematen diet, eta oso gustora hartzen dute" komentatzen du Nekane. "Bat baino gehiago seko harrituta geldituko zen" jarraitzen du, "tabernara japoniar batzuk sartu eta 'non eseriko gara?', 'gabon, karta mesedez', edo 'oso ona zegoen, kontua mesedez' euskeraz hasi zaizkionean".

Estatu espainoletik datorren jendeak Zuloaga museoa ezagutzen omen du, eta Laia museoagatik galdezka ere etorri zait baten bat, "dirudienez publizitate asko egin diote" dio Nekane. Baina jeneralean Bilbotik Donostiara bidean herrian kasualitatez sartu diren turistak izaten dira, ez zuzenean Zumaiara datozenak, eta herria ez dute ezertaz ezagutzen, "askok mapan non ote dauden seinala-tzeko ere eskatu didate". Jateko eta lo egiteko tokiaz galdetzen dute, hauen prezioak, hondartza, inguruan festarik ba ote dagoen...

Zuloaga museoa ezagutzen dute

Badago galdera arraroak egiten dituenik ere. Joan den astean familia kataluniar bat etorri omen zitzaion, Idoia zuen izena alaba batek, eta Idoiako monastegia non zegoen jakin



nahi zuten. Dei batzuk egin ondoren Erronkariko Isaba herrian zegoela jakin zuten, eta 'Idoia' izeneko ostatu batean tokia bilatu zieten bertan. "Atzo ere beste xeble batzuk etorri zitzaizkidan" jarraitzen du Nekane, "Budapest-a nola joan zitezkeen galdezka".

Langile fina da Nekane, edozeinek egingo lukeen bezala haizea hartzera bidali edo ez zekiela erantzun beharrean hor ibili zen Budapestearainoko konbinazioak bilatzen. Horrela nola ez du ba turismoak gora egingo.

◀ ANTOKA AGIRRE

TXOKO TABERNA

Artadi auzoa
Tel. 862189

ARozTEGIA
Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsiak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505

xirula

Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

CARLIN OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORJINALAK, HP, EPSON...

Fotokopiak 5 pezetan

Kale nagusia, 3 Tel/Faxa: 143453

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051

DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

EGOKI

Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Zer iruditzen zaizu artistek tabernetan jarritako obrak?



Nerea Sudupe

Ondo.
Horrela jendeengan interesa
sortzen du arteak eta gehiago
hurbiltzen da
jendearengana.



Arkaitz Agirrezabala

Oso ondo.
Kabikuak
gustatu zaizkit gehienak.



Kontxi Rodrigo

Ondo iruditzen zait
beraien lana
erakustea, zaila da mundu
hori ezagutaraztea eta hori
aukera bat da.



Amaia Vicente

Gehiena
Nikolekua
gustatu zait, ze Igor
Zendoianak dia.



Bittor Raul

Espresatzeko
zerbait izanez gero
ona da azalaztea, ez
tabernetan bakarrik,
kalean ere bai. Hala ere, ez
naiz asko ibili tabernetan,
baina ikusi dudan gutxia
gustatu zait. Ihintzakoa
adibidez.



Iñigo Etxabe

Idea asko gustatzen zait.
Egia esan gauetan ez
naiz asko ateratzen eta
Ganbara eta Gure
Txokoakoak bakarrik ikusi
ditut, eta beste urtetan
gehiago gustatu
zaizkit.



Igone Saizabal

Oso ondo.
Beti daude batzuk
besteak baino gehiago
gustatzen zaizkitenak eta
besteak ezer esaten ez
didatenak.

**EGUZKI
PUB**

Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

ekin
elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Televés
Instalador
Oficial


MoviStar

MoviLine

Erribera, 18
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

CANAL+

CANAL DIGITAL



Jose Luis Oiarzabal

“Nik barrena lasai daukat”

Jose Luis Oiarzabalen kasua zumaiarron ahotan ibili da azken hiru urteotan. 19 urtez Gasteizera soldadutza egitera joan eta, bortxaketaz akusaturik, 12 urte kartzela zigorra ezarri zioten. 95etik Langraitzen egon ondoren, hilabete honetan Donostiako Ametzagaina zentru berezira dator eta bertan beteko ditu falta zaizkion 27 hilabeteak. Guk berarekin hitz egin nahi izan dugu, bere egia kontatzeko aukera bat izan dezan.

▣ Konta iezaiguzu nola ba batean zure bizitza zurrumbilo beltz batean sartu zen.

1994ko azaroan soldadutza egitera joan nintzen Gasteizera. Ez nuen soldadutza hori egin behar, hankan dudan arazoengatik baina ez nintzen libratu. Dena hor hasi zen okertzen. Pentsatzen nuen libratuko nintzela, baina ez zen horrela izan. Dena den, soldadutza ona izan nuen. Ez zeuden nik behar nituen botak eta uniforme osoa behar da zerbait egin ahal izateko. Makinaz idazten nekiela esan nien eta bulego batean sartu ninduten. Zazpi hilabete egin nituen egoera horretan. Dena oso ondo eta lasai zihoan, egun batean koronelak bere bulegora deitu ninduen arte.

▣ Zer gertatu zen koronelaren bulegoan?. Hori ez da dei arrunta izango?

Koronelak deitzeko zerbait arraroa gertatu behar da, eta kezka horrekin joan nintzen bertara. Astelehena zen, eta Espainiako bi polizia aurkitu nituen bertan. Galdeketa bat egiteko asmoarekin etorri ziren, nire aurkako salaketa bat zegoelako. Emakume batek sexualki erasotu nuela salatu omen zuen eta beraiekin komisaldegira joan behar nuela azaldu

zidaten, zenbait galderari erantzuteko. Harrituta nengoen, baina ez nuen inolako arazorik galderei erantzuteko, eta beraiekin joan nintzen oztoporik jarri gabe. Abokatua etorri arte ez erantzuteko eskubidea nuela esan zidaten, baina nik esan nien ez nuela horren beharrik ikusten.

▣ Eta hortxe hasi zen oraindik amaitu ez den amesgaiztua. Zer gertatu zen galdeketa horretan aske utzi beharrean kartzelan amaitzeko?

Komisaldegian esan zidaten neska batek nire aurkako salaketa bat jarri zuela sexualki erasotu nuelako aurreko ostegun gauean, eta itxura denez, nire gorpuzkeraren deskripzioa ere eman zuen. Poliziek galdetu zidaten ea norekin egon nintzen gau hartan Gasteizen, eta nik nire bi lagunaren izenak eman nizkien. Gau hori bertan pasa behar izan nuen. Goizean epailearen idazkaria etorri zen eta nik esandako bi lagunek deklaratu zutela esan zidan. Ez omen ziren ezertaz gogoratzen, edanda zeudelako. Nik ezin nuen sinetsi. Hori ezinezkoa zela esan nion idazkariari, baina deklarazioa erakutsi zidan, eta hala zen. Epailearengana eraman ninduten, eta honek kartzelan sartu behar ninduela esan zidan. Nik ez nuen ezer ulertzen,

epaiketarik izan gabe, epaileak ni errudun nintzela erabaki baitzuen.

“Komisaldegian esan zidaten neska batek nire aurkako salaketa bat jarri zuela sexualki erasotu nuelako aurreko ostegun gauean, eta itxura denez, nire gorpuzkeraren deskripzioa ere eman zuen”

▣ Zeure burua kartzelan ikusi zenuenean, zein izan zen zure lehenengo erreakzioa?

Lehen bi egunak negarrez pasa nituen, gelditu gabe. Gainera, buruko arazoak dituen jendearen moduluan sartu ninduten, nik neure buruaz beste egingo nuela uste baitzuten. Nire gelan beste preso bat sartu zuten, horren beldur baitziren. Lehen abokatua izendatu zidaten, eta honek esan zidan nire kasua zailegia zela beretzat, eta beste abokatu bat jarri zidan. Nire kasua jarraitu dutenek esan didatenez, honek ez du ahal izan duen guztia egin. Pentsa ezazu, kartzelan daramatzadan hiru urteotan lau aldiz baino ez zait etorri bisitan.

Behin zurrumbilaoan sartuta zaudela ikusten duzunean, bizitzen ari zaren egoera egiazkoa dela onartzen duzunean, zer egin zenuen?

Abokatuarekin batera salaketa jarri zuen neskaren deklarazioa aztertzen hasi ginen akatsak bilatzeko. Eta egia esan, harrituta gelditu nintzen akats ugari baitzituen. Hura ikusita animoak gora egin zidan eta pentsatu nuen baldintzapeko askatasuna lortzeko moduan izango nintzela, epaiketa izan arte. Baina ez zen hala gertatu. Epaile feminista bat tokatu zitzaidan eta ukatu egin zidan baldintzapeko askatasuna. Pixkanaka ikusten nuen gauzak okertzen ari zirela.

Baina zeintzuk ziren bere deklarazioan aurkituriko akatsak?

Beno, nire gorpuzkeraren deskripzioa nahikoa zehatza zen, baina nik orduan neraman erroparena zeharo okerra zen. Esan zuen taberna jakin batean egon ginela eta ordu horietan itxita egoten da. Gainera, bazituen ustezko bi lekuko, baina hauek ez ziren ados jarri deklarazioa egiterakoan. Bakoitzak gauza bat esaten zuen. Aurkeztu genituen akats guztiak baztertu zituen epaileak, inolako arrazoirik eman gabe. Baina hori ez zen okerreza izan. Asteazken batean, salaketa jarri zuen neska epailearengana joan eta lur jota zegoela esan zion, ez zela etxetik ateratzeko gauza ere. Guk detektibe bat kontratatu genuen. Ostiral horretan bere lagunekin goizeko 2:00ak arte parrandan ibili zen eta etxera bakarrik itzuli zen. Larunbatean berriz, kanping batean egon zen mutil batekin. Datu horiekin gezurretan zebilela frogatuta gelditzen zen, baina epaileak ezetz. Horrela, beste hainbat froga aurkezten joan ginen, baina dena atzera bota ziguten. Epaiketa izan arte, barruan egon beharko nuela ulertu nuen.

Zenbat denbora eman zenuen kartzelan epaiketa gertatu arte?

13 hilabete egin nituen. Gogorra izan zen, baina nik garbi nuen epaiketan aske irtengo nintzela, eta horrek aurrera jarraitzeko indarra eman zidan.

“Euskara irakasten dut eta liburutegiko arduraduna naiz, eta horrela modulutik urrun pasatzen dut egun osoa. Hori izan da nire helburua, bertan egotearekin bakarrik arazoak izan ditzakezulako”

Baina ez zinen aske gelditu.

Epaileak erruduntzat hartu zintuen eta 12 urteko kartzela zigorra ezarri zizun.

Epaiketan bere deklarazioan agertzen ziren akats guztiak aurkeztu genituen. Gertakizunen lekua bi aldiz aldatu zuen, baita deklarazioa bera ere. Aurkeztutako frogekin ezinezkoa zen ni errudun ateratzea, baina hala gertatu zen. Sententziak berak onartzen du, argi eta garbi, kontradikzio ugari dagoela. Horrela dio gutxi gorabehera: “Nahiz eta kontradikzio guzti hauek egon, Jose Luis Oiarzabali 12 urte eta egun bateko kartzela zigorra ezartzen diogu moralki errudun dela sinisten dugulako”. Hau da, neskaren hitza nahikoa izan zen ni kondenatzeko, beste frogarik ez baitzegoen. Ez zuten sexu harremanen inolako arrastorik aurkitu bere gorputzean. Epaiketa burutu eta hiru hilabetera izan nuen sententziaren berri, eta ez modu gozoenean gainera. Etxera deitu nuen eta arreba eta ama negarrez aurkitu nituen. Abokatuak deitu ziela eta kartzelan 12 urte egin beharko nituela esan omen zien. Horrela izan nuen sententziaren berri. Txikituta utzi ninduen.

Sententzia jaso ondoren, noiz ulertu zenuen horrek zure bitzitzako hurrengo urteak guztiz baldintzatuko zituela?. Zenbat denbora behar izan zenuen egoerari buelta emateko?

Ez da erraza horrelako sententzia bat onartzea, baina nire lehen erreakzioa kartzelako bilkurarengana jotzea izan zen. Bilkura honetan kartzelako psikologoak, irakaslea, lege gizona eta abar biltzen dira, preso bakoitzaren egoera aztertzeko. Ni psikologoarengana joan nintzen. Sententzia erakutsi nion eta

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458



ENTER
INFORMATIKA

Ordenagailu salmenta
zerbitzu teknikoa
hardware eta software
informatikako kurtsuak

Tel. 861175

Baltasar Etxabe z/g

Faxa: 860550

expert



ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etxezarreta, 6

Tel. 861078



Aero Mertzee

Erribera kalea, 6

Tel./Faxa: 861707

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 - 143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330



TABERNA
Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57



harrituta gelditu zen. Ez zuen ulertzen nola zigortu ninduten inolako frogarik gabe. Lehenbailehen ateratzen lagunduko zidala esan zidan, baina nik jadanik ez nuen ezer sinetsi nahi ordura arteko hitz guztiak haizeak eramane baitzitu.

■ Zehazki, zer eskatu zenion kartzelako bilkura horri?

Nik Ametzagaina zentroaren berri izan nuen. Zentro hau jende gazteari zuzendua dago eta nik baldintza guztiak betetzen nituen Langraitzetik atera eta Ametzagainara etortzeko. Horixe eskatu nien, eta ongi iruditu zitzaion.

■ Zer eskaintzen dizu Ametzagainak bertara joan nahi izateko?

Ez du zerikusirik Langraitzekin. Langraitz kartzela arrunta da, horrek esan nahi duen guztiarekin. Ametzagaina Martutenen dagoen 15 lagunen-tzako zentroa da. Bertan tailerrak daude eta jendeak lana egin dezake, egunero ordu batzuk kalera ateratzeko aukera duzu eta horrek ikasteko aukera ematen dizu. Ikasketak amaitu eta ingelesarekin jarraitzeko asmoa dut. Egoera zeharo ezberdina da. Ez dago funtzionariarik, leihoan ez duzu barroterik... eta mendia ikusten da.

Futbol zelaia, saskibaloia kantxa eta pilotalekua ditu. Estatuan ez dago horrelako beste zentzurik.

■ Baina oraindik Langraitzen zaude.

Prozesu guztia atzeratuz joan da. Guk sententzia errekurritu egin genuen, atera berria zen kode berriaren arabera bi urte gutxiago egin beharko nituelako kartzelan. Urtebete igaro zen errekurtsioa sartu eta azken sententzia iritsi arte. Sententzia eskuan nuela, berriro bilkurara jo nuen. Hurrengo pausoa hirugarren gradua eskatzea zen, ezinbesteko baldintza baita Ametzagainara joan ahal izateko. Eskaera egin zuten Madrilera abuztuan, eta urrian ezetza etorri zen bueltan. Errekurtsioa egin zen Bilbon eta hortik ere ezetza iritsi zen otsailan. Aurtengo uztailean iritsi zait azkenean baiezkoa.

■ Baina, zergatik ukatu dizute, ia urtebetez, hirugarren gradua?

Hasiera batean, Madril, kalera ateratzeko baimenik gabe aurkeztu nintzelako. Hori espero nuen. Baina Bilbon gertaturikoak ez du inolako zentzurik. Fiskalak zioenez, nire sexu portaera ez zen aldatu azken hilabeteetan. Horrek ez du inolako zentzurik. Gasteizen egin genuen azken errekurtsioa, eta bertako fiskalak, hirugarren gradua eman didanak, hankaz gora jarri ditu Bilboaren argudioak. Gasteizkoak dioenez, Ametzagainara joateko eskubidea dut, nire portaera zuzena izan delako uneoro, eta langilea eta indarkeriaren aurkakoa naizela erakutsi dudalako. Datorren hilean Ametzagainan izatea espero dut, baina bertan izan arte ez dut sinestuko.

■ Nolako azalpena ematen diozu gertatu zaizun honi? Kontatzen duzunaren arabera, Kafkak ere ez luke horrelako eleberririk zentzugabea idatziko.

Nik ez diot inolako azalpenik aurkitu. Salaketa jarri zuen neskarekin hitz egin nahi nuke zergatiak galdetzeko. Askotan pentsatu izan dut diruagatik egingo zuela, baina horrek ez du zentzurik, ez baitu inolako etekinik atera. Hori bai, beti pentsatu izan dut guztia aurrez erabakita zegoela, muntaia hutsa izan zela. Niri ostegun gau hartan aurkeztu zidaten neska hura. Gasteizko lagun batek aurkeztu zidan. Baina besterik gabe. Minutu pare bateko gauza izango zen, eta gero ez nuen gehiago ikusi. Nire beste bi lagunekin egon nintzen gau osoan, eta gero bietako baten kotxean egin genuen lo. Gero, jakin izan dut kasualitatez bere mutilak nirekin batera egin zuela soldadutza, baina nik ez nuen ezagutzen eta soldadutzan ez nuen inolako arazorik izan inorekin. Guztia oso arraroa da, eta muntaia itxura osoa hartzen diot. Baina guzti honen arrazoia zein den ez dakit. Gainera, min gehien ematen didana da kartzelan sartu nautela nahiz eta muntaiak akats ugari izan.

■ Zumaiara itzuli zaren bakoitzean, nolako erantzuna jaso duzu jendearengatik?

Orokorrean jendeak asko lagundu dit. Nik beldur handia nuen alde horretatik. Lagunen bitartez banekien jende asko zegoela kezkatuta nire egoeraz, baina ez dakizu zer gertatuko den herrira itzultzerakoan. Ez dakizu jendeak zer esango duen, ez eta zuk nola erantzun duzun. Baina bi urte t'erdia pasa ondoren lehen aldiz etorri



Auto-konponketak
ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea

TEI. 860201



gofi
haur jantziak

Amaia plaza z/g

Tel. 860959

nintzenez oso gustora gelditu nintzen. Badakit jende askok zalantza handiak dituela, baina nik barrena lasai daukat. Norbaitek zerbait jakin nahi badu nigana etorri eta galdetu dezala. Ez daukat inolako arazorik erantzuteko. Behin Zumaian esan zidaten ea nola nituen berriro herrira itzultzeko barrabilak. Ni bertakoa naizela erantzun nien, eta nire herrira itzultzeko eskubide osoa nuela, benetan errudun banintz ere.

“Behin Zumaian esan zidaten ea nola nituen berriro herrira itzultzeko barrabilak. Ni bertakoa naizela erantzun nien, eta nire herrira itzultzeko eskubide osoa nuela, benetan errudun banintz ere”

■ Nolakoa da, 19 urteko gazte batentzat, kartzelako bizitza?

Nik 19 urterekin ez nekien ezer kartzelari buruz. Epaileak Langraitzera joan behar nuela esan zidanean, ea hori zer zen galdetu nion. Lehenengo hiru asteak modulu berezi batean egin nituen, epaileak hala aginduta. Bertan preso arriskutsuak daude, eta egunean ordubeteko patioa baino ez genuen. Egunean 23 ordu 4m2-ko gelatik atera ezinik. Halako batean beste modulu batzuk, gimnasioa, liburutegia eta abar zeudela jakin nuen. Kartzela nire moduloa baino gehiago zela jakin izan ez banu, auskalo nola egongo nintzatekeen gaur egun, egoera hura jasangaitza baitzen. Orduan, beste modulu

batera aldatzeko eskatu nuen, gauzak egin nahi nituela eta. Onartu egin zuten, eta gimnasioan hasi nintzen 3. modulura aldatu bezain laister. Aurrerago liburutegiko ardura hartu nuen eta euskara irakasten ere hasi nintzen. Hiru hilabetez lan egiteagatik 45 egun kentzen dizkidate zigorretik. Bi urte egon naiz klaseak ematen. Horrela, egun osoa lanean pasatzen dut eta ez dut moduluko jendearekin egon beharrik, ez eta funtzionarioekin ere. Nire helburua modulutik urrun egotea izan da, bertan egotearekin bakarrik arazoak izan ditzakezulako. Bertan dagoen jende gehiena droga-zalea da, eta etorkin ugari dago. Lapurketa ugari egoten da eta oso erraza da liskarrak izatea.

■ Eta bortxatzaileak ez daude batere ongi ikusita.

Kartzelan sartu nintzenez psiko-
logoak esan zidan lehenengo gauza izan zen zerbait asmatzeko, baina ez esateko bortxaketagatik zigortu nindutenik. Nik esan nion ez nuela ezer asmatzeko beharrik nik ez bainuen ezer egin. Azkenean onartu egin behar izan nuen bere aholkua, eta soldadutzan arma bat lapurtu nuela asmatu nuen. Gero txarrena izan zen konfiantzazko lagunei egia esatea. Batzuk gainera prentsaren bidez jakin zuten. Behin dutxan nengoela bat etorri zitzaidan jotzera, bortxatzailea nintzela esanez. Duela lau hilabete lapurreta egin zidaten eta nor izan zen jakin nuen. Jotzeko gogoia etorri zitzaidan baina gehiegi nuen jokoan eta utzi egin nion. Egia esan, kartzelan gauza txar guztiak ikasten dituzu.

■ Kartzelak bergizarteratzeko funtzioa betetzeko prestatuta daudela uste al duzu?

Hori kartzela ezagutzen duenak bakarrik esan dezake. Kartzelan ez dago horretarako ez baliabiderik, ez asmorik. Inork ez ditu laguntzen eta funtzionarioek ez dute euren lana behar bezala betetzen. Kartzela 450 lagunentzako da eta 1000 ere egon izan gara zenbait unetan. Zenbat eta okerrago egon, orduan eta gustorago daude funtzionarioak. Kartzela negozio bat da. Funtzionarioen artean dauden azpijokoak sinestezinak dira. Hura beste mundu bat da eta kanpotik ezin da ulertu.

■ Zure familiak nola eraman du egoera guzti hau?

Agian nik baino okerrago. Arrebak eta amak asko sufritu dute, batez ere hasieran. Etxean ni nintzen mutil bakarra eta kolpe gogorra izan zen gertaturikoa. Nire ama denbora batez etxetik atera gabe egon da, beldurragatik. Arrebak hobeto eraman du, ausartagoa izan da. Gainera, gure familiak ez die batere lagundu. Orain gauzak hobeto daude. Donostiara etorriko naiz laister eta ama gustorago dago, baina oso gaizki pasa du.

Elkarrizketa hau abuztuaren 18an egin zen, Jose Luis Oiarzabal Langraitzen zegoela izan zuen azken irteera baimena aprobetxatuz. Epeak bete badira, jadanik Ametzagainako zentroan izango da, eta 2000. urteko abenduan emango diote baldintzapeko askatasuna. 2002. urtean amaituko da 1995ean, 19 urte zituela, hasi zen amesgaizto hau. Hori bai, ezin izango du inoiz ahaztu.

◀ GORKA ZABALETA

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



orain beheko plazan!

Eusebio Gurrutxaga, 6 Tel. 143395

Gure txokoa


• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak


San Pedro kalea

FRANNING

-SUNTSIKETA ERAIKIZ-



FADURA HAU AURRETIK
BARRUNA ERAMANGO DUGO
BERTAN KIROL PORTU BAT
ERAIKIAZ



MENDIALDE
HONETAN ALDIZ
ZORTZIREUN-
DIK GORA
ETXEBIZITZA
ETA APARTA-
MENTU IZANGO
DITUZTEN
ETXEBIZITZA
BLOWEAK DOAZ



BASO HAU KENDU
ETA AUTOPISTAREKIN
LOTUNEA ERAIKIKO
DUGO, BAITA ETORBIDE
EDER BAT



ar g a z k i t a n euskal jaiak


*baserritar egunian
"desaperzibido" pasa
nahian zeudenak ere
ikusten ziren tarteka*



*Txalapartariak jende guztia
erakartzea lortu zuten*



*beheko plazara ere
bikote dotorea hurbildu
zen dantza giroa
jartzera*



*Kijarrok bere
sagardoa
ateratzeko
"maestria"
erakutsi zuen*

English School

Harvest

San Jose, 11 bis Tel. 143334



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

Hernani aldetik ere
hurbildu zen jendea
Zumaia girotzera



Ez pentsa! Sagardoa atera-
tzeak bere konzentrazioa behar
du

beroaren
ondorioz painue-
loari erabilera
ezberdinak eman
genizkion



kuadrilen
egunean
txirringulari
ugari ibili
zen kaleetan
zehar



Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIXKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

IHINTZA

taberna



Erribera kalea Tel. 861523

Erregionaleko futbol taldeak entrenatzaile berria du aurten

Joseba Alberdi itziartarrak Oskar Kastro ordezkatu du aulkian

Zumaiako F.T. Erregionaleko taldeak entrenatzaile berria du denboraldi honetarako. Orain arte Oskar Kastro izan da kargu honetan aritu dena baina aurten, Joseba Alberdi orain arte bigarren entrenatzaile lanetan

aritu denak hartuko du ardura hori. Itziarren jaiotako gizon honek Zarautzen eman ditu urte gehienak entrenatzaile modura. Urruti joan gabe, orain dela urte gutxi batzuk, erregional mailako Antoniano taldea laugarren postuan geratu zen ligan bera entrenatzaile zela.

Ondoren Zumaiara etorri eta azken bi denboraldi hauetan bigarren entrenatzaile modura egon ostean, orain berari egokitu zaio talde nagusia zuzentzeko erantzukizuna. Liga irailaren 20an hasiko da eta aurtengoan ere helburu nagusia, Preferentera igotzea da.

Azkenengo denboraldi honetan taldea lehenengo postuetan aritu da denbora guztian, baina amaieran apur bat bere maila jaitsi eta ezin izan zuen igotzea lortu. Denboraldi honetan, joan den urteko taldearen oinarria mantentzen da eta hau horrela izanik, mailaz igotzeko helburua errazago bete daiteke nahiz eta egokitu zaien taldea nahiko gogorra izan. Besteak beste, Zarautz eta Antoniano taldeak multzo berean egongo dira.

Gainontzeko futbol taldeak ere, Pulpo Eskubaloi Taldea eta Zumaiako Saskibaloi Taldeak ere beren denboraldia prestatzen ari dira, liga hasierari ahalik eta hobekien ekiteko asmoz. ◀



Itxas Gaineko 4 neska Espainiako txapeldun

Itxas Gain Zumaiako piraguismo taldeak emaitza ezin hobekak lortu ditu uda honetan jokaturako proba ezberdinetan. Denen berri ematea ez da erraza eta horregatik, emaitza garrantzitsuenak soilik aipatuko ditugu. Beharbada, arrakasta handiena, abuztu hasieran lortu zuten Itxas Gain taldeko piragunistek.

Galiziako Portodemouros urtegian burututako proban, emakumezkoen kadete mailako K-4 modalitatean,

zumaiarrak Espainiako txapeldun izatea erdietsi zuten. Untzia honako lau lagunek osatu zuten: Batirtze Letamendia, Maite Benito, Maite Garcia eta Ane Galarraga.

Honetaz gain, Zamora eta Galizia aldeko beste txapelketa batzuetan ere parte hartu izan dute, guztietan beti ere emaitza oso onak lortuz. Aipagarria da, abuztu amaieran Maratoiko Espainiako Txapelketan egindako lana. Talde erdia baino

gehiago gaixorik zegoen, gastroenteritis bat zela tarteko. Hala ere, gainontzekoak Espainiako Txapelketa horretara abiatu ziren, guztira zazpi piraguita. Oso lan txukuna egin zuten eta horren adierazle da nesken taldeak sailkapen nagusian lortutako bigarren postua. Kalitate maila handia izateaz gain, kasta eta gogo handia dutela azaltzen ari dira Itxas Gain taldeko palistak. ◀

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387



Zerbitzu Ofiziala
ZUMAIIA MOTOR

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143



ZURICH
ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169



ilargi
kontzertuz eta musikaz blai

Alai auzategia, 2 Tel 143324

ILEAPAINDEGIA
IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 860760

Pilota txapelketa ezberdinak jokatu dira abuztuan

Abuztua hilabete mamitsua izaten da Zumaian pilota txapelketa ezberdinei dagokienez. Alde batetik, Dinastia Etxabe afizionatuentzako pala motzeko eta eskuz binakako torneoa jokatu ohi da eta honekin batera, aurten bigarren aldiz Pala Txapelketa Azkarra burutu da. Uda honetan ordea berritasun bat izan da bi txapelketa hauetaz gain, izan ere abuztu guztian zehar herri mailako eskuz binakako torneoa jokatu baita.

Estreineko aldia izateko, harrera ona izan du partehartzaileen aldetik, guztira txapelketa honetan hamabi bikote aritu baitira lehian. Hauen artean, bi nabarmendu dira bereziki beste guztien gainetik: Alberdi-Aizpurua eta Salaberria-Saizabal bikoteak.

Hauetxek jokatu zuten finala eta azken neurketa horretan, Alberdi eta Aizpurua 22-16eko markagailuarekin irabazi zieten beren aurkariei. Partidu gogorra eta entretenitua ikusi zuen frontoira bertaratu zen ikusle multzo handiak. Hirugarren eta laugarren posturako neurketan berriz, Zubimendi eta Agirrerentzat izan zen garaipena Alberdi eta Amilibiaren aurrean. Finaleko bi bikote horiek alde batera utzita, beste guztiak bigarren maila batean izan dira.



Joakin Gorostola, Pala Txapelketa Azkarreko irabazlea.

Aurtengo esperientzia positiboa ikusita, datorren urtean txapelketa hau berriro jokatzea espero da.

Pala Txapelketa Azkarra

Bestalde, abuztuaren erdialdera II. Pala Txapelketa Azkarra jokatu da, eta ia bezala txapelkun Joakin Gorostola suertatu da. Finalean, Alkortari erraz gailendu zitzaion eta modu honetan bigarren urtez jarraian txapela eskuratzea lortu du. Aurten, aldaketaxoren bat ere egon da torneo honetan, izan ere partidu guztiak lehengo bost kuadroen barnean jokatu baitira, ikuskizuna handitzeko nahia-rekin. Badirudi gainera helburu hau lortu dela, 97ko txapelketarekin alderatuta. Orduan, kantxa guztian

zehar aritu ziren pilotariak eta espektakulu gutxiago eskeintzeaz gain, neke handiagoa ere hartzen zuten.

Dinastia Etxabe

Pilota txapelketen errebaso honekin amaitzeko, Dinastia Etxabe afizionatuentzako pilota txapelketa prestijio-tsuan, Zabalza-Erburu pala motzean eta Muruamendiaraz-Inurrategi eskuz binaka gertatu dira bikote txapelkunak. Ohi den bezala, aurten ere kalitate maila handiko torneoa izan da. Honen adibide argia, bi bikote txapelkunak, beraiek direlako pala motzean nahiz eskuz binaka urte honetako Espainiako txapelkunak. ◀

ITSASKI
SUPERMERCATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373

Itzurun
ATEAK

Itzurun zuhaitzbidea, 2
Tel. 861565 - 143446

Andeetan tontor batetik bestera

Xabier Aldalur mendizale gazte zumaiarra, Peruko Andeetako mendikatean izan da hilabete osoz, zehazki Mendilerro Zuria deituriko zonaldean. Beste hiru lagun gipuzkoarrekin batera, 5.000 eta 6.000 metroko bost mendi igo dituzte, tartean Huascaran, Peruko gailurrik garaiena. Pirineo eta Alpeetan sarritan izana, lehen aldiz igo ditu Xabierrek altuera horietako mendiak.

Sei mila metroko lehenengo tontorrak igo dituzu. Zer nolako esperientzia?

Izugarria izan da; aurrez igo ditudan mendiekin ez du zer ikusirik. Peru aldera iritsi eta egin genuen lehenengo gauza trabesiatxo bat egitea ezan zen. 4.500 metrora igo ginen eta berehala aklimatazio faltaren sintomak igerri genituen. Alpeetan izan naizen altura hortako mendietan ez dut aklimatazio arazorik izan, baina Perun, lehenengo hiruzpalau egunetan nahiko gaizki pasa genuen: buruko min handiekin,



botaka etengabe... Esfortzu handia egiten genuenean ere askoz gehiago nekatzen ginen.

Huascaran Peruko Andeetako gailurrik altuena ere igo duzue. Zailtasun handiak al ditu mendi honek?

Mendi honen magalean jarri ginenean igotzeko nahiko mendi erraza zela iruditu zitzaigun. Altuera handia bazuela bai (6.760 metro), baina fisikoki ondo xamar prestatuta egonez gero, nahiko erraz igotzekoa. Baina gorantz gindoazela konturatu ginen oso egoera arriskutsuan zegoela.

Toki hartan ez daude lau urtaro hemen bezala. Han euria egiteko garaia eta lehorre garaia dago, eta aurtan, "El Niño" deituriko fenomeno bitxi hori dela eta, oso euri gutxi egin du. Horregatik, Huascaraneko mendian elur gutxi zegoen eta glaziarretako grietak oso irekita. Honetaz gain, mendi honek ez du zailtasun

berezirik. Izotzezko horma bat du baina hau gainditu ostean, ez du beste oztopo handiegirik erakusten.

Gertatzen dena da baita ere, aldapa guztien azpian grietak daudela; ez da Pirineoetan bezala, bailara batekin egiten duzula topo. Horregatik, igoera guztian zehar akats txiki bat egiten baduzu grietan behera zoaz eta ez duzu zer eginik.

Mendi horretan orain dela gutxi bilbotar bat desagertu da eta Aramaioko beste bat hil. Azken honekin gainera gorantz zihoala topo egin zenuten, ezta?

Bai, gu jaisten ari ginela Huascaranetik, bera gorantz zihoan bakar-bakarrik. Berarekin egon ginen pixkat hitzegiten eta komentatu genion grieta handiak zeudela, oso arriskutsua zegoela mendia. Igoera beste norbaiten laguntzarekin egitea aholkatu genion, baina berak bakarrik moldatuko zela esan eta igotzen jarraitu zuen. Hau ikusita, pentsatu genuen oso mendizale esperimantua izango zela, baina jaitsieran grieta handi batean behera erori zen. Erori zen lekutik gainera, inguruan zegoen beste espedizio batek beraiekin jaitea eskeini zion, baina bere kabuz jarraitu zuen.

Nola egiten da Huascaran bezalako mendi baterako igoera?

Planteamendu ezberdinak daude era honetako igoerak egiteko orduan. Gu 3.050 metrora zegoen herri batetik hasi genuen igoera. Lau lagun ginen eta bi denda genituen; bat igotzeko erabiltzen genuen eta bestea oinarritzko kanpamenduan utzi genuen. Bi asto eta arrieroa (astoa gidatzen duena) alokatu genituen eta

ileapaindegia

IZETA

Urumea, 6 Tel. 862083

Joseba Ossa

ITZULPENAK

euskara . gaztelera . katalana
ingeleza . frantsesa

Tel./Faxa: 148306
E-mail: bakun@encomix.es

julio curiel

g PELUQUERO

Gizonezkoentzat
ileapaindegia
Erribera kalea, 23

4.200 metroan, baso batetik barrena oinarritzko kanpamendua ezarri genuen. Han lehenengo kanpina jarrita utzi genuen janari pixkatekin, horrela itzuleran zerbait jateko izan genuen.

4.800 metrora berriz "morrena" deritzon leku bat dago, haitza eta glaziarraren artean dagoen zona bat eta hemen, jende askok atseden hartzen zuen, pixka bat hobeto aklimatatzeko. Guk ordea aurrez, sei mila metroko beste mendi bat igo genuen eta glaziar baten barnean zegoen 5.100 metroko lehenengo kanpamendura jo genuen zuzen-zuzenean. Han lo egin eta 5.900 metrora bigarren kanpamendua antolatu genuen.

Tarte honetan zegoen mendi honen zailtasun handiena, lehen aipatutako izotzezko horma hori zegoen. Hemendik gailurrera iristeko, zortzi ordu t'erdia behar izan genituen.

■ Neguan izan zarete Andeetan. Hotzarekin arazorik izan al duzue?

Ez, harrিতuta geratu naiz, askoz hotz handiagoa egingo zuela uste bainuen. Lehenengo hiru astetan eguzkia izan genuen egunero eta azken egunean bakarrik harrapatu gintuen ekaitz batek.

■ Huascarango mendia alde batera utzita, igo duzue beste mendirik?

Bai. 5.000 metroko pare bat mendi igo genituen, Urus (5.400 metro) eta Ishinca (5.500 metrokoa). 6.030 metroko Tocllaraju tontorra egin genuen, ondoren Huascarango gailurra eta azkenik, Artesonraju, 6.025 metroko mendia igo genuen. Azken hau oso mendi polita zen eta teknikoki nahiko zaila igozteko.

■ Andeetan garai honetan euskaldun dexente egoten dela diote. Zuek aurkitu al zenituzten bidean?



Tocllaraju-ren lehenengo kanpamendua (5.200 m.).

Asko. Gainera gu izan garen zonalde hartan Euskal Herria izeneko taberna bat dago, eta jabea Elgoibarkoa da. Taberna honetan euskaldun pila bat bildu ginen eta inguruko mendiei buruz informazioa jasotzeko leku aproposa da.

■ Etorkizunerako baduzu buruan antzeko beste proiekturik?

Hegoamerikako zona hori asko gustatu zait, ezberdina da. Gainera gazteleraz egin dezakezu eta ulertzen zara bertako jendearekin; alde horretatik gozamina da. Bolivia edo Txile aldera gustora joango nintzateke, baina oraindik ez dut ezer serio pentsatu.

◀ IGOR URANGA



Huascaran Norte eta Sur.

 **Loredenda JEMAR**
LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK
Erribera, 1 Tel. 860375

*Jesuskoa
Jatetxea*
 Tel. 861739
OIKIA
ZUMAIA

 **LARRATEGIA URDAITEGIA**
Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

Kontserbako natura:

benetako babesgune edo kontsumorako produktua?

Naturgune interesgarriak babesleku izendatzearekin batera, turismoaren gorakada izugarria nabaritzen da ia bat-batean

Natura babestu behar dugula ez du inork zalantzan jartzen. Gure ingurunean gelditzen diren naturgune interesgarriak mantentzea guztion ardura da. Horretan ados gaude. Baina, nola babestu? Zein da bide egokiena? Orain arte, mundu osoko gobernu ezberdinek aurkitu duten biderik zabaldunea babesgune izendatzearena izan da. Horrela, mundu mailan ezagunak diren Yellowstone edota Fujiyamako parkeak sortu ziren. Maila apalagoan ere, beste hainbat babesgune daude sakabanaturik, baita gure inguruan ere -Zarautzen Inurritzako biotopoa, adibidez-. Babesgune hauek, hitzak dioen bezala, babes maila jakin bat duten naturguneak dira. Horraino dena ongi. Baina normalean bigarren ondorio nabari eta

larri bat ere izaten du babesgune izendapenak: turismoa erakartzea.

Eta une horretan kontserbako natura benetako babesgune izatetik kontsumorako produktu bilakatzeko arriskuan izaten da. Babesgune bakoitzak, parke bakoitzak gestio plan berezia eta berezkoa behar du. Bertan zorrotasun handiz zehaztu behar dira parkearen erabilera guztiak, bestela akabo. Naturgune babestuak oso erakargarriak bihurtu dira gure gizartean. Balio handiko produktu bilakatu da aisialdiaren gizartean, eta mundu guztiak nahi du pasa asteburu bat Ordesan edota Teiden. Gainera, parke horiek guk gozatzeko daudela saltzen zaigu, inguruko herriek etekina ateratzeko aukera paregabea aurkitzen dute, eta babesgune behar zuena kontsumo produktu bilakatzen da ia oharkabea. Oso erraza da pauso hori ematea. Ekonomiak agintzen du, eta babesguneei etekin handia atera dakieke.

Aisialdia eta natura oso lotuta daude. Eta aisialdia negozio itzela bihurtzen ari da mende amaiera honetan. Espainian egindako ikerketa baten

arabera, 56 jarduera ezberdin egin daitezke naturan, eta 1200 enpresa berri sortu dira hauek ustiatzen dituztenak. Eta gauzak nola dauden ikusita sektore honek gora egingo du, gero eta jende gehiagok eskatzen baititu zerbitzu hauek. Hori ona edo txarra da? Garbi dago ikuspuntu ekonomikotik albiste bikaina dela. Baina naturaren babesaren ikuspuntutik? Gutxienez, arrisku handia suposatzen du, batez ere, babesgune gehienetan erabilera zuzentzen duen planik ez dagoelako.

Eta ez gaitezen inozoak izan. Babesguneek asko mugatzen dute bertan bizi direnen jarduera ekonomikoa, eta turismoa bultzatzea baino ez zaie gelditzen gehienetan. Hori ere ukatuz gero, parkeek ez lukete bertan bizi direnen babesa izango. Ez litzateke parkerik egongo. Babesa eta erabilera kontrolatuaren arteko oreka ezinbestekoa da. Eta heziketa. Natura errespetatzen jakin behar dugu, eta parkeek ezartzen dituzten arauak bete egin behar dira. Hau da, Ordesako parkean errekan bainu bat hartzea debekatuta badago, ez hartu eta kitto!!! ◀ **GORKA ZABALETA**



Zenbait parkek jasotzen dituzten bisitaldiak

EEBBko parkeek	270 milioi
Japoniako babesguneek	980 milioi
Erresuma Batuko parkeek	103 milioi
Alpeek	100 milioi
Teidek	2,5 milioi
Timanfayak	1,8 milioi
Covadongak	1 milioi
Ordesak	0,65 milioi

taberna JUSTA
eguneroko bazkariak
Erribera kalea, 20

kalari
Erribera kalea, 16
Tel. 862517

- J * Eguneroko bazkaria
- A * Pintxo eta bokatak
- T * Koadrilentzako menu bereziak
- E * Kazuelitik eta plater konbinatuak
- X
- E
- A

KABI
TABERNA - ZUM
Tel. 143379

iraila

AZPEITIKO ITSASI DANTZA TALDEAREN SAIOA

► Irailaren 5ean, larunbata 22.00etan,
Odieta pilotalekuan

ARRITOKIETAKO AMAREN EGUNA

Meza eta erromeia.
► Irailak 8, azteartea

ARTADIKO MIKEL DEUNAREN OMENEZKO JAIAK

Irailaren 26tik 29ra

► larunbata 26. **Gazteen eguna**

- 5.30 zezenak eta zaldi txikiak
- 7.00 sagardo festa
- 9.00 afari herrikoia
- 11.00 kontzertua (Ajopuerro colinegro, Baratz bass, Hamabi tribu)

► Igandea 27. **Zaharren eguna**

- 11.00 meza, herri kirolak, bertsolariak
- 14.00 bazkaria
- 5.30 zezenak, bertsolariak

Egunean zehar SARATZ taldea

► Asteartea 29. **San Migel eguna**

• 11.00 meza, pelota partidua eta txakolin festa, trikitixa eta bertsolariekin

IKASTAROAK

Datorren ikasturteari begira Foronda Kultur Etxean ikastaro bereziren bat antolatzea nahi izango bazenu edo proposamenik baduzu jo ezazu bertara.

JULENE AZPEITIA XI. IPUIN

LEHIAKETA:

Lehiaketara aurkeztutako bete beharreko baldintzak:

- 1.- Euskaraz idatzita egon, orijinala izan eta argitaragabea.
- 2.- Gaia librea izango da eta gutxienez 12 folio eduki beharko ditu, makinaz idatzirik bi espazioetara, orriaren alde batetik. Lan bakoitzaren hiru ale bidaliko dira.
- 3.- Idazlanak izenburua bakarrik eramango du agerian, idazlearen izena, ezin izango da inon aipatu. Idazlanarekin batera, gutunazal itxi bat bidali beharko da, horren kanpo-kaldean idazlanaren izenburua jarri beharko delarik eta barrukaldean berriz, egilearen izen-abizenak, telefonoa, sinadura eta N.A.N.aren fotokopia.
- 4.- Lanak aurkezteko epea, irailaren 30ean amaituko da eta sari banaketa garaiz adieraziko da.
- 5.- Idazlanak, helbide honetara bidali beharko dira: Zumaiako Udala. Euskara Batzordea. Julene Azpeitia XI. Ipuin Lehiaketarako dela adieraziz.
- 6.- Hiru sari emango dira:

Lehenengoa: 325.000 pezetakoa.
Bigarrena: 150.000 pezetakoa.
Zumaiarraren lan hoberenari: 125.000 pezetakoa.

urria

LAPURDIKO BORDAXURI

TALDEAREN ESKUTIK ANTZERKIA

► Urriak 3, larunbata (sarrera 600 pezeta)
Aita Mari aretoan

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

LIBURUTEGIA

Helduentzat

► Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta 16.00 - 20.00.

Larunbatean, 10.00 - 13.00

(ekainaren 20tik aurrera larunbatetan itxita)

Haurrentzat

► Astelehenetik ostiralera, 16.00 - 20.00

ARTXIBO HISTORIKOA

► Egunero, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

Liburutegian.

► Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta 16.30 - 19,30

KUKUTZ
serigrafia

- kamisetak
- txiskeroak
- paperezko poltsak

Tel. 860569
Baltasar Etxabe, 7

AIZPURUA
LIBURUTEGIA

opariak

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6
Tel. 860415

ZINEA



Seis dias , siete noches (1998)

Zuz: Ivan Reitman

Akt: Harrison Ford, Anne Heche

Pasa den abuztuan, kristoren abiadurarekin pasa dira filmeak Aita Mari aretoan. Egunero izan dugu pelikularen bat ikusteko aukera, eta horien artean batzuk nahiko interesgarriak: Coen anaien *El Gran Lebowski*, Martin Scorseseren *Kundun* eta Wim Wendersen *El final de la violencia* horien artean. Martxa hori dela eta, nahiko zaila egin zaigu filmeren bat aukeratzea, aldizkaria atera aurretik pantailaratua egotearen aukera baitzegoen. Hori dela eta oraindik Donostiako aretoetan ikusgai den *Seis dias, siete noches* aukeratu dugu.

Filme hau Harrison Fordek komedian egiten duen beste saiakera bat da, eta aurrekoetan bezala, *Armas de mujer* bezala frakaso hutsa. Hitz gutxitan pelikulatxo honek kontatzen duena elkarren artean zerikusi gutxi duen bikote baten maitasun istorio bat da. Hasera batean ezin izango dute elkar ikusi baina abentura askoren ondoren elkarren arteko maitasuna piztuko da. Politza ezta? Ba beno, gai honekin milaka filme egin dira historian zehar, batzuk bikainak gainera, baina zuzendaria zein den ikusita, *Cazafantasmas* eta *Junior* negargarrien egilea den Ivan Reitman kanadiarra, ezin gauza onik espero.

Anne Heche-ek lan txukuna egiten du. Oraindik Hollywooden hasiberri bat da eta ezin da hasera batetik maisu-lan bat eskatu behar. Harrison Ford berriz... beno gainbeheran dagoela ezin ukatu. Urteak dira ez duela filme on bat aukeratu, agian 1987ko *La costa de los mosquitos*-etik. Onartu behar da gainera ez duela komediarako balio.

Hitz gutxitan, *Seis dias, siete noches*, hemendik pare bat hilabete barru inork gogoratuko ez duen filme bat.

Irakurketarako aukerak

Euskaraz

Harremanaren arrastoan
Patagonia Express



Juan Kruz Igerabide
Luis Sepúlveda

Gaztelerez

Rigoberta: la nieta de los mayas Rigoberta Menchú
El libro negro del Euskera Joan Mari Torrealdai
Vagabundo en Africa Javier Reverte
Subcomandante Marcos la Genial
Impostura Bertrand de la Grange, Maite Rico
Ese cadaver Rafael Torres



Haurrak/Gaztetxoak

Botilako deabrua Robert Louis Stevenson
Gabonetako kanta Charles Dickens
Piztiak eta superpiztiak Saki



Loitz

- * Eskola eta bulegorako materiala
- * Enkoadernazioak
- * Fax publikoa
- * Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422

Tel. 143278

Maite
ileapaindegia

KÉRASTASE
PARIS

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Berriz ere Larrañaga

Aurten ere Aitor Larrañaga zarautarra nagusitu da aldizkari honek antolatutako komiki lehiaketan. Badirudi "Peli" ilegorriak neurria hartua diola gure lehiaketari eta iaz bezala lehen sariari dagozkion 25.000 pezeta eskuratu ditu, "Planning (suntsiketa eraikiz)" lanarekin. Bigarren saria aldizkarian aspalditik ezagutzen dugun Daniel Carballok irabazi du, eta ondo merezita poltsikoratu ditu 15.000 pta, "Mundu mediatikoa, Kultura eta talde berrien pertsonalitate arazoak" lanari esker. Zumaiar onenaren sarirako, berriz, bikote bat daukagu, Iñigo Garcia eta Jose Luis Barredok osatutakoa, hain zuzen. Hauek ere iazko saria errepikatu dute eta "Oposaketak beti oposaket" lanarekin irabazitako 15.000 pezetak —erdi bana edo— ondo partituko zituztela iruditzen zaigu.



Komiki lehiaketako sariak lortu dituzten artistak

Bestalde, IV. edizio honetan geratzen ziren lanak aztertu ondoren, epaimahaiak beste lan bat ere saritzea erabaki zuen, Jon Manzisidor gure kolaboratzailearen "Komikia Fin" hain zuzen ere. Ondorioz, Joni 10.000 pta.ko akzesita ematea erabaki zuten epaimahaikideek, lanean ageri den "puntu psikotroniko galaktikoa" baloratuz.

Abuztuaren 20an egin zen sari banaketa, eguraldi ederra lagun Amaia plaza inguruetan zerbezatzeko batzuk hartuz. Batez ere artea eta komikigintza mintzagai izan ondoren,

umore onean atera genituen argazkiak ere. Aipatu beharra dago guztira 7 lan aurkeztu direla —4 zumaiarrenak— eta sarituak eta saritu gabekoak, guztiak ere orrialde hauetan ikusteko aukera izango duzuela.

Lerro hauen bitartez Koldo Landa-lucek eta batez ere Elgoibarko KOKOE kolektiboko partaideek lanak epaitzen emandako laguntza eskertu nahi genuke, eta talde honek duen esperientziari esker, datorren urteko ediziorako zenbait gauza hobetzea espero dugu.

◀ XABIER AZKUE

ILE APAINDEGIA

herea
uranga

Etkezaretza, 19 Tel. 862342



MENDI - ONDO c.b.
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
 - .Banakakoak
 - .Kolektiboak
 - .Satelite bidezkoak
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ETA ABAR...

Axular, 14 Tel. 860074 - 861569

Nikol  **Enea**

TABERNA

Amaia plaza

Tel. 861440



GILANO

Paperdenda LIBURUDENDA
Aldizkariak
Fotokopiak Baltasar Etxabe, 7
Enkuadernazioak Tel. 143191



Zumaia 98 Nazioarteko Musika Jaialdia

Ubillos Musika Etxearen patioan eskailerak gorantz hartu eta harrizko eraikuntza bati dagokion freskura, hotza, somatu dut, gaur dabilen hego haizea petrala xahutzeko primerakoa. Lehenengo solairura iritxi eta bertan topatu dut Udala Musika Patronatoak jaialdirako erabili duen bulego "orokorra", bulego "inprobisatua", paperez josia. Gehienontzat aspaldi amaitu zen aurtengo Nazioarteko Musika Jaialdia. Antolatzaileak aldiz, oraindik, azken ukituak ematen buru-belarri dabilta.

Iñaxio Tolosarekin nuen hitzordua eta solasean hasi gara. Balorazio bat egiteko eskatu diodanean, zalantza-izpirik gabe balorazioa "positiboa" dela erantzun dit. "Kontzertuetan 2.500 ikusletik gora izan dira, ikastaroetan 100 bat ikasle eta komunikabideek ere aurreko edizioetan baino interes gehiago azaldu dute."

Jaialdi bat amaitu bezain pronto hasten dira hurrengo urteko jaialdia

prestatzen eta urte osoa ematen dute antolaketa lanetan. Udala Musika Patronatoa 15 bat lagunek osatzen dute eta hauek gain, jaialdian parte hartzen duten irakasleek ere jarraipen zuzena egiten dute ikastaroak programatzu e.a.

Aste Santurako Italia, Frantzia, Belgika eta estatu osoko kontserbatorioetara ikastaroen egitaraua bidaltzen da eta propaganda egiten hasten dira.

"Aurten, ikastaroetara, 20tik 26 urte bitarteko musikariak hurbildu dira eta aipatzekoa da katalanen partehartzea. Gainera, musikari gazte hauen maila, iazkoarekin alderatuta hobea izan da. Hoi artean Joven Orquesta de España eta Euskadiko Gazte Orkestrako zenbait musikari izan direlarik."

Bi ikastaro berri eskeini dira aurten: klarinetea eta oboea. Klarinete irakaslea José Luis Estellés izan da eta honek ikasle asko erakarri omen du.

Kontzertuen atalera pasaz, azken bi urteetan Musika Jaialdiari beste kutsu bat eman zaio, kontzertu gutxiago eta popularragoak antolatu dira. "Aurten Ainhoa Arteta eta Mikel Laboaren emanaldiak eskeini dira eta bi saioetan aretoa bete egin da. Ainhoa Arteta ikustera Zumaiar asko hurbildu da, Mikel Laboaren aldiz, kanpoko herrietatik ikusle gehiago etorri da. Honez gain, beste kontzertuetako erreperorioan aire freskoagoak sartu nahi izan ditugu eta mende honetako obrak entzun ditugu: Piazzola, C. Saint-Saëns eta Juan Carlos Perezen musika. Bestalde, aurten, Jaialdiko Orkestra eta San Pedro abesbatzaren kontzertua zuzentzen

Manuel Valdivieso maisua aritu da eta bai musikariak eta bai antolatzaitzeak ere oso gustora geratu gara egindako lanarekin".

Kontzertuak Maria eta Jose ikastetxean, parrokan eta Mari kalean izan dira. "Kontzertu trikietarako Aita Mari aretoa Maria eta Jose ikastetxekoa baino egokiagoa da baina sonorizatu egin behar da eta ia datorren urterako arazo hori konpontzen degun. Mari kalea aldiz leku oso bitxia da, eta bertan eskeintzen diren saioetan ikusle goi-finkoa degu. Bestalde, aipatzekoa da Ganbara Musika Lehiaketan ikusle goiaren interesa eta partehartzea, taldeen lana puntuatzerakoan geroz eta gehiago ausartzen direlarik".

Beti gertatu ohienez, zerbait antolatzek zerbaitak maneiatzea dakar eta kasu honetan ere berdin gertatzen da. 12.500.000 pezetako aurrekontua izan dute. Hona hemen sarreraren banaketa: Zumaiako Udala: 4 milioi, Foru Aldundiak: 1.600.000, Kutxa Fundazioak: 500.000, Euskadiko Kutxak: 150.000 eta gainontzekoa, iazko "superabita", kontzertuetako sarrerak eta ikastaroen matrikulekin osatu dute. "Aurten ez dugu ez "superabitik" ez eta galerarik izan, eta askok sinesten ez badute ere, kontzertuak eta ikastaroak autofinantziaz egin dira."

Gustora jarraituko nuke solasean, buruan baitabilzkite datorren urtean izan daitezkeen kontzertuak, bainan mingaina dantzatzeari utzi eta Ubillosen utzi dut Iñaxio paper artean kalkulagailuarekin jolasean.

◀ ESTI ESTEIBAR

1000CE

JOXE
MANUEL

Kupoi batzuk
erosi eta ...

ZORTE ON !!


Tel. 862347 - 861001

OPTIKA ZUMAI A



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

ETOR ZAITEZTE GURE DENDA BERRIA EZAGUTZERA!



Turismoa Zumaian *Badirudi turismoa berrindartzen ari dela gure herrian, eta horretarako ere hotelak bata bestearen atzetik zabalduz dabiltza: Zumaia Hotela, Thalasoiterapia zentrua etab. Baina Zumaiaiko historian turismoaren bilgune izan den hotelik bada: Hotel Amaya hain zuzen ere. Gaur etxebizitzak zeuden tokia hartzen zuen, eta ikus dezakezuen bezela Amaiaiko plazak ere bestelako itxura zuen.*



TXOKOAK emandako afaria **XUBAN OLAIZOLA** rentzat izan da. Askok asmatu zenuten bezala, uztailaren 5ean izan zen dantzari eguna.

Lehiaketa goxoa

Adi, adi! Berriz ere tartak ematen hasi gara!!!



Nongo festak dira hauek?

Asmatzen duzuenon artean *Txapartegi* gozotegiak emandako tarta zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure Buzoi berrian (jartzen dugunean) edota Txapartegin bertan uztea, irailaren 20a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670

BELARDENDA
SIWA
Izaga Garcia
DIETISTA
Esther Blanco
OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

motxian hil!



zein: Francisco Jose Barroso
zer: Mekanikoa
nola: Fran

Handitan ze izatea gustatuko litzaizuke?
Zoriontsua

Zer da gehien gustatu zaizuna oporretan?
Ordutegirik ez izatea

Lau zurito aterako mesedez?
Gasa nahi batian?

Zure lagunen bat zumaiara etorritz gero nora eramango zenuke?
Nire etxera

Epe motzerako proiektu bat, eta epe luzera?
Motorra aldatu. Aldegin

Norbaiti aholku bat eman behar bazenioke?
Zuretzat ondo dagoena egin ezazu

Zer eramango zenuke irla batera?
Lagun bat

Zerk zorutzen zaitu?
Zoramena zorutzen nau

Zer egingo zenuke urezko koltxoi batean?
Igeri

Zahartzeari ba al diozu beldurrik?
Ez, zahartzaroa bizitzaren zati bat da

Bikinia ala bainujantzia?
Ez bata eta ez bestea

Mazeta batean zer landatuko zenuke?
Mugitzea nahi ez dudana guztia

Agur bat
Agur

agurrak

Potro!
Gortu Kalipo eta Ander
fijo!

Mexikano!!
Noizko da afari hori?
PELUTXI

Mexikano!!
"Sola yo no se estar que
no me va la soledad"
EZ PASAU!

GIZON TXIKI!
Bentiladoriak hoztu eta
neskak berotu. Itxi !!!

"Prueba de acceso" egin
bezain laister, "prueba de
embarazo"
GORTU!

Kuadrilen eguna eta
nun? zeruan?
BATXU PA

JESUS MARI, Zuzendari!
Gogo asko eta potentzi
gutxi.
NUNTXUPA!!!

KUADROX!!!
Hik dakak lana in
biharra.
Hik bakarrik lana iten
dekela uste al dek?
ZIMELO!

OSA ZORIONAK!
Espero dugu BURUra ez
igotzea porke BURUA
ideien BONBilak pizteko
behar duzu.

THE FRIENDS OF
YOUR'S TUPE

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenan
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

fidatzeko baimen guztiak



P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 861416



ERROTA



OPIL OKINDEGIÀ

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa Tel. 860000

Erribera, 2 143001

Juan Belmonte, 5 860300

Basadi, 4 143221

P. Etxezarreta, 42 862528



Zumaiako Udal Musika Patronatoa
Zumaiak (Gipuzkoa)

ZUMAIA



XIV.

Nazioarteko
musika
jaialdia

*Mila esker
zumaiar giztioi
zuen patehartze eta laguntzagatik*

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO




Urolthermik

Arotzia Metalikoa



POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA